

Hitzaurrea



ugalariak garai batean hemendik hara eta handik hona hainbat produktu garraiatzen ibili ziren mendietako bidezidorretatik ilar-gia lagun zutela. Beno bada, honako zenbaki honetara Kataluniako, Galiziako eta Euskal Herriko «hitzen mugalariak» (itzultzaileak) egindako lanen azterketa zabal bat ekarri dugu, baita beraien iritzi eta esperientzi ezberdinak ere.

Hitz eta Pitz atalean JOAN PAU HERNÁNDEZ idazle eta itzultzaile katalanari egindako elkarrizketa interesgarri bat aurkituko dugu; Joan Pauk jatorriz euskaraz idatzitako hogeitaz liburu baino gehiago itzuliak ditu, hortaz, badu zeresana gai honen gainean.

Hitzordu sailean, GALTZAGORRI ELKARTEAK iaz abian jarri eta lortutako arakasta bultzatuta aurten ere herriz herri dagoen egitasmoaren berri izango dugu: «Irudiz irudi, liburu ibiltari».

Segidan, *Hizpide* atalean, hiru artikulua zoragarri daude. Lehenengoa MÓNICA DOMÍNGUEZek egin du. Bertan, Euskal Haur eta Gazte Literaturako liburuaren artetik galizierara itzulitakoak aztertu ondoren bere ikuspuntua islatu du Mónica. Ildo beretik doa Faristol aldizkariko buru diren JOAN PORTELL eta PEP MOLISTEK egindakoa, baina kasu honetan ikuspuntua Kataluniatik datorkigu. Azkenik, XABIER ETXANIZEK euskarara itzulitako Kataluniako zein Galiziako Haur eta Gazte Literatura aztertu du.

Gero, *Hitzontzi* atalean Kataluniatik jasotako harri bitxi bat luzatuko dizuegu: 1936an JOSEP M. FOLCH I TORRESEK idatzitako *El petit refugià i el seu company, Pàgines viscudes del temps de la guerra* liburutik aterata dagoena (ED. Fundació Folch i Torres, 2000). Eskerrak eman behar dizkiogu Pere Martí i Bertani, izan ere, bere eskutik jaso baitugu ipuina eta euskaratu ondoren, hona hemen zuek guztiontzako opari goxo hau.

Jarraian, irakurleek asko estimatzen duten *Hitz beste* sekzioan erreseina andana topatuko ditugu. Bertan, erreseinagile ezberdinek liburu askotarikoen gainean egindako iruzkin aberasgarriekin gozatzeko parada izango dugu.

Bukatzeko, MANU LOPEZ idazle eta itzultzaileak *Hitzatze* zinez erakargarria mamitu du galdera batetik abiatuta: Zergatik eta zertarako euskaratu?

Azkenik, bene-benetan estimatzekoa eta goraiatzekoa da IÑAKI MARTIARENA OTXOTORENA, MATTINEk, egindako lana, eta ziur gaude bere ilustrazioek freskotasuna txertatuko dutela orri ezberdinetan.

